



UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Ez- Ohikoa eta premiazkoa
Deialdia: Lehena
Eguna: 2013/08/01
Ordua: 14.00 – 14.05
Lekua: Izurtzako Udalbatza aretoa

Bertaratuak:

LUIS JOSE BALLARIN ALBERDI jn. (BILDU)
PEDRO JOSE JAYO GOROSPE. jn. (BILDU)
NEREA ZARRABEITIA ASUETA. And. (BILDU)
OSKAR ZARRABEITIA ASUETA. jn. (EAJ-PNV)

Ez bertaratuak:

PAUL BAÑOS ONAINDIA jn. (BILDU)
ETOR GORROÑO GEREDIAGA. jn. (EAJ-PNV)

Idazkaria: David Álvarez Martínez



Aztergaiak

- 1.- Saioaren eta gaien premiari buruzko adierazpena.
- 2.- Etxebizitza tasatuen proiektua idazteko kontratazio espedientean agertu diren eskaintzak sailkatzea, hala badagokio.
- 3.- Aurreko ekitaldiko gastuak, hala badagokio onartzea.



Esan-eginak eta erabakiak

Jarraian, Alkate jaunak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma dagoela egiaztatzeari ekin dio, eta batzordea eratutzat jo da.

1.- Saioaren eta gaien premiari buruzko adierazpena.

Alkate jaunak hitza hartu du eta horrela azaroaren 28eko 2568/1986 Errege Dekretuaren 83. artikulua, hau da, Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duenak, xedatutakoa betearaziz Izurtzako Udalbatza Osoak saioaren premia eta hurrengo gaien premia onartu beharko ditu. Premia dator, alde batetik, etxebizitzaren exekuzio proiektua aurtan bete behar delako aurtengo aurrekontuetan sartzeko eta horrela onartutako plan ekonomikoa betearazteko; bestaldetik, dauden fakturak orain gutxi jaso ditugu udalean, baina denbora larregi pasa denez eta kontratisten onurarako lehen bailen ordaindu beharko genituzke.

Beste inork aipamenik egin ez duenez Udalbatzak, aho batez, saioaren premia eta bigarren puntua premiazkoak jo ditu

2.- Etxebizitza tasatuen proiektua idazteko kontratazio espedientean agertu diren eskaintzak sailkatzea, hala badagokio.

Ikusita 2013ko uztailaren 4an Udalbatzaren ebazpenaren bitartez Etxebizitza tasatuen proiektua idazteko kontratua esleitzeko espedientea eta Administrazio Klausula Partikularrak onartu zirela, prozedura irekia erabiltzen.

Ikusita 2013ko uztailaren 30ko datarekin Kontratazio Mahaia bildu zela eta honek, balorazio aspektuak kontuan hartuz PERALTA AYESA IZURTZA, UNION TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982, NÚMERO UNO kontratua esleitzeko proposamena egin zuela, eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta honen arabera eta 151 artikulua eta Arlo Publikoko Kontratuentzako testu bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 EDL-aren Bigarren Disposizio Gehigarriaren arabera, Udalbatzak, aho batez, onartzen du:

LEHENENGO. Lizitatzailleek aurkeztutako proposamenak sailkatzea, kontratazio mahaiak eginiko proposamenaren arabera, eta ondoan azalduko den orden beherakorrean:

ZK	Enpresa
1	PERALTA AYESA IZURTZA, UNION TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982, NÚMERO UNO

BIGARRENA. PERALTA AYESA IZURTZA, UNION TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982, NÚMERO UNO enpresari jakinaraztea eta eskatzea ebazpen hau jakinarazi eta hamar egun balioduneko epean honako hauek aurkeztu behar dituela: Gizarte Segurantza eta zerga ordainketetan egunean dagoela adierazten duen agiria, baita kontratua betetzeko hitza eman duen baliabideen jabetza daukatela adierazten duten agiriak eta behin betiko bermea osatu.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta beraren aurka ezingo da errekurtsioa jarri.

3.- Aurreko ekitaldiko gastuak, hala badagokio onartzea.

Idazkari jaunak hitza hartu du eta aurreko ekitaldietako fakturen berri eman du. Ez da beste inolako interbentziorik egon eta bertaratutako bozketa egin ondoren bertaratutako kideek, aho batez, ondorengoa onartu dute:

Lehena.- Aintzatestea Udal honi eska dakizkiokeen kreditutzat, aurreko ekitaldietan hartutako gastu konpromisoari dagokiona, eta ondorengo zerrendan agertzen dena:

Folder 56,57€

Beristain 1.109,69€

Bigarrena.- Apirilaren 20ko 500/90 Errege Dekretuaren 26.2.b) art.ak xedatutakoarekin adostasunez, aurreko kredituak egungo ekitaldiko gastu aurrekontuaren baitan erantsiko dira, dagozkien gastu partidetan.

Horrenbestez, aztergai gehiago ez dagoenez, bilkura amaitutzat jotzen da, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut, Alkate jaunaren oniritziarekin.

Idazkaria

O. E.
Alkatea



IZURTZA
UDALA